



RESIDENCIAS  
EGOITZAK

# KOMISARIOTZAREN INGURUKO IKERKETA PROIEKTUAK GARATZEKO EGOITZA



**2018** / Deialdiaren itxiera  
2018/03/20

II  
Huarte

Komisariotzaren inguruko ikerketa proiektuak garatzeko bi egoitza deialdi luzatzen ditu Uharte Zentroak (bata, lekuko agenteei zuzendua, eta bestea, bertakoak ez direnentzat). Helburua, praktika honen alderdiak Nafarroan zehar barreiatzea da.

Uharte Zentroak, ekoizpenaren inguruko ardua izateaz gain, jakintza eta ezagueren ingurukoa ere badu. Hori dela eta, publikoarekin elkarbanatzeko beste moduak dituzten eta programazioa jasangarritasunean, malgutasunean, informaltasunean eta elkarlanean oinarritzen duten ikerketa proiektuenganako interes berezia du. Beraz, ikerketak, ingurua, pertsonak eta lekuak aintzat hartu beharko ditu.

Aurkeztutako proposamenak, idazketa proiektuak, editorialak, komisariotzaren inguruko ikerketak eta/edo proiektu dokumentalak izan daitezke, eta hasierako edozein fasetan egon ahal izanen dira.

Egoitza garatzen duen pertsonak komisariotzaren inguruko ikerketa proiektua garatzea espero da, eta hau, Uharte Zentroaren lan ildoan garapen kontzeptual eta praktikoarekin lotu ahal izatea. Egoitzan zehar, bi agenteak elkarlanean ari daitezke, ikerketaren objektua 2018ko Uharte Zentroaren programazioaren parte izan dadin.

## **NORI ZUZENDUA DAGO**

Arte garaikideko komisariotzaren inguruko ikerketa proiektuetan interesa izan dezaketen pertsonei, idazmenetik, komisariotzatik edo beste ikerketa alor batzuetatik abiatuta. Ez da beharrezkoa komisariotzaren inguruko ikerketa proiektu garatu bat izatea, nahikoa da gerora garatzeko hasierako ikerketa ideia bat. Egoitzetako bat Nafarroarekin lotura duten pertsona edo kolektiboek zuzendua dago.

## **DATAK**

Deialdiaren itxiera: 2018/03/20

Hautaketaren jakinarazpena: 2018/03/30

Hilabeteko egoitza data hauen artean burutuko da: 2018/04/30 – 09/30

## **ZER ESKAINTZEN DA?**

- 2.250€ (atxikitze eta zergak barne) egoitza-kide bakoitzarentzat zerbitzu-sari eta dietentzat.
- Bertakoa ez den egoitza-kidearentzat alojamendua.
- Uharte Zentroan lan egiteko lekua, premia teknikoak eta teknologikoak barne.
- Proiektua garatzeko garaian Zentroko taldearen sostengua eta behar izatekotan beste agente edo proiektu batzueganako gerturatze-laguntza.

## **IRIZPIDEAK**

- Proiektuak beste pentsamendu maila batzuekin eta inguru artistiko ez-ohikoekin loturak ezartzeko duen gaitasuna.
- Proiektuak Uharte Zentroaren lan ildoekin duen bat etortzea.
- Ikerketa zuzentzen duen pertsona edo kolektiboaren esperientzia eta prestakuntza.
- Gertuko testuingurua nahasteko borondatea.
- Bilguneak, hausnarketa eta tirabira kolektiboak bilatzen dituzten proiektuen alde eginen da.

## **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

- Laburpen edo ideia orokor bat (5.000 karaktere gehienez)
- Proiektuaren inguruko gai edo kontzeptuak
- Parte-hartzaileen biografia


## **OINARRIEN ONARPENA**

Parte-hartzaileek, deialdira aurkezte hutsarekin, oinarri hauek onartzen dituzte.



**||**  
**Huarte**  
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA  
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO

Calvario, 2. 31620  
Uhartelua | Nafarroa Navarra  
t. 948 361 457 | [centrohuarte.es](http://centrohuarte.es)

Finantziatua / Financiado por  
 **Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**